

Aik! txorierrri

Txorierrri irikiten:

**Zamudio, Sondika,
eta Loiuko jaiak,
Txotxongilo eta
AEK Eguna...**





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Ixone Zubieta, Jabier Lekerika, Jasone Astola, Gotzon Barandiaran, Nati Cuevas, Ines Serrano eta Ioritz Larrabeiti

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria

12 Iñaki Aretxabaleta



26 Txinpasmendi Guraso Elkartea



28 Eguzkitik babesteko aholkuak



30 Ipar-Abesbatzaren 30. urteurrena

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak
10Euskara Aholku Batzordea **11**Gazteen txokoa
12Gaztea eta... Iñaki Aretxabaleta **13**Zamudioko Pazko
jaiak **16**AEK Eguna **18**Txotxongilo Eguna **20**Loiuko
jaiak **23**Sondikako San Joan jaiak **26**Txinpasmendi
Guraso Elkartea **28**Osasuna **29**Teknologia
30Musika... Ipar-Alde abesbatzaren 30. urteurrena
32Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

Enpresa kultura berria



IZARNE AGIRRE

(Humanitate eta Enpresa ikaslea)

Langilea esplotatu dute; hitz gogorrak horiek, baina gaur egun ere aplikagarriak. Pentsamendu liberala pixkanaka-pixkanaka txertatuz joan ahala, kapitalaren autonomiarekin egiten dugu topo: liberalizazioa, pribatizazioa, deserregularizazioa; “zazio” asko. Estatuak indarra galdu eta bere esku egon den ongizate funtzioa merkatuaren esku geratu da. Halaber, aktore horrek ez du injustiziak ezabatzea lortu; aitzitik, areagotu egin ditu: desberdintasun ekonomiko eta sozialak, indibidualtasunaren bultzada, kalte ekologikoak, kapitalaren kontzentrazioa, lan baldintza prekariorioak... Gaur egungo enpresa ereduaren helburuei erreparatuz gero, lehengo enpresetakoekin bat egiten dutela ikusiko dugu: etekinak lortu. Fordismora edota Taylorismora jotzen dute gaur egun langileria, ondo bizitzeaz gainera, pribilegiatua dela adierazteko. Hala ere, langileriaren esplotazioa gaur egun ere ematen da ia enpresa guztietan. Hori oso era bortitzean izaten da, baina, aldi berean, inkontzienteki, zaila delako frogak erakustea. Nola kritikatu Bikaintasunaren Q-a

lortu duen enpresa bat? Bikaintasunaren ikuspegitik, ez, noski. Baina zeri esaten diote bikaintasuna? Langilearen partehartze mailari? Itxurari ala etikari?

Enpresak merkatuan bizirik iraun nahi badu, enpresa barnean etikadusia sartzea ezinbestekoa duela argi dago. Eta etika horrek arlo ekonomikoa eta soziala orekatu behar ditu, lantokia gune demokratikoa eta partehartzailea bilaka dadin. Langilearen ahotsa zapaldu da urteetan zehar, eta horregatik hitz egiten eta enpresaren parte izaten uzten zaio orain. Aukera hori ez dauka edonork, eta nola kexatuko da, ba? Antza denez, langileak bereganatzeko sistema aldatu egin da. Langilea gaur “pozik” doa lanera, bere lantegira... Horrela, bada, enpresa langilearen “dena” bihurtu da eta horrela, hain zuzen ere, lortzen da enpresaren errentagarritasun maila igoetzea.

Baina langileari ziria sartu nahi zaio. Lan-ametsak usteldutako ametsak bihurtzen dira. Langileak enpresa berea dela sinistu eta inplikazio maila izugarria jartzen du lanean; ordainean jasoko duena kolpe bat baino larriagoa izan daiteke.

Ondorioz, garrantzitsua da lana

garatuko gaituen esparrutzat hartzea eta horrela ez izatekotan, horretaz jabetzea, puntu eta aparteak ezartzea eta goxoki erakargarrien aurrean kritikoak izatea.

Eztabaidarako tarte txikia ireki bada, handitzen saiatu behar dugu. Kultura berria kritikatu behar da; hala ere, kanpoan salatzea alferrik da, barruan ere ez bada lantzen. Enpresa, kultura, Euskal Herria, 2006, ametsa ko ditugu konpartitzeko.

“Langilearen ahotsa zapaldu da urteetan zehar, eta horregatik enpresaren parte izaten uzten zaio orain. Baina ziria sartu nahi zaio”

Orain dela ez asko...



IXONE ZUBIETA

(Tximintx Euskara Elkarteko kidea)

Informazioaren eta Teknologia berrien garai honetan, ezinezkoa zaigu imajinatzea nola bizi ziren orain ez urte asko. Nola imajinatu garbigailurik edo telebistarik gabeko mundua? Eta zer esanik ez, telefono mugikorrik gabeko mundua? Telefono finkorik gabeko mundua ere, nola imajinatu?

Bada, ez da horren urrun joan behar horrela bizi izan den jendea aurkitzeko! Ez da historiaurrera irten behar bila! Segur aski gure etxean bertan edo inguruan egongo da Kromagnon gizaki itxurarik ez duen aitita/amamaren bat, eta gauza hauei buruz asko dakiena.

Nola aldatu den bizitza! Horrenbeste denbora pasatzen dugu gauzak egiten, hara eta hona joaten..., non askotan ez dugun gure artean hitz egiteko tarterik topatzen. Beti dago zeozar lagun arteko hizketaldia baino garrantzitsuagoa dena. Ez dago astirik, ez dago pazientziarik, eta askotan ezta gogorik ere! Askorentzat denbora alperrik galtzea da.

Orain urte batzuk, telebistarik ez zegoen garaian, gauzak beste era batera ikusten ziren. Beste era bateko entretenimenduak topatu behar, eta etxeko lanak amaitzean, sutondoaren inguruan bildu eta kontu kontari ematen zituzten orduak.

Darogun bizitzaren abiadura une batean gelditu eta gure aitita-amamen ahotik ateratzen den jakituriari tartetxo bat egitea gomendatzen dizuet, asko izango baitute guri irakasteko, eta guk haiengandik ikasteko.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es



20 kilometro orduko

Maiatzaren 5a, zeozer egin behar zala eta, Zamudioko Txorierri etorbideetik 20 km/orduko joatea izan da akordau jatan gauza bakarra.

Goizeko 10ak zeozer gutxiago. Ni eta “jaia” txaleteko aldatsa igoten. Igon be fenomeno, konponduta dago bidea eta. Halako baten, non ikusten dodazan

Lezama aldetik, Jabiti inguruan, lau erruedako tramankulu berdeak.

Hori ikusi eta Zamudioko Herriko Taberna burura etorri, dana bat izan da. Zer egin lau gurpildunei morala joteko? Askorik ez baina, arrapaladan “jaia” topera ipini aldatsean eta aurea koiu.

Hor goaz, trafikoko seinale guztiak

ondo markatuz, peatoi bako marretan geldituz, eta 50 markatzen dauen tokitik 20 km-ko abiadura eroanez.

Seguramente kalkulatuta izango zituen euren denporak, ze ordutan heldu eta zarratu Julemendi elkartea, baina minutu askoko tarteaz izan ez bada be, “jaia”ren 20 km-ko abiadurak arean fastidiau deutse. Gero Eleixaldera heldu eta ni baino arinago ibili dira.

Txaletetik Eleixaldera kilometraje askorik egon ez arren, abiadura horretan joanda pentsateko astia be izaten da... (pentsateko suspensiboak dira honeek). Pentsatu dozue zeozer? Ikusi dozue noraino heldu dan gure herri hau?, eta ez dot Euskal Herria esaten, Zamudion berton be nahikoa dogu konpontako, dirua eta politika dogu borbor, eta barrutik hutsik gagoz. Bata bestearen ganetik beti ibili behar, eta behar diran momentuetan laguntasunik ez.

Gaur 20 km-ko abiadurak pentsateko denpora emon deust (eta 5 minutuko atzerapena batzuei). Ea ba danok hartzen dogun hamar edo hogeiko abiadura, eta hausnarketa eginez entzuten ikasten dogun. Ez dogu zertan ideia bardinak izan behar, koloreak be ez dira bardinak, baina ez pentsa beti norbera dala nagusi. Azkenik bi mezu. Altuen bere burua ikusten dabenentzat: altutik dabi-zenak, jausikieran taparrada galantak hartzen deuriez. Bigarren mezua bere burua makur eta jausita ikusten dabenentzat: aldats guztiek bere aurbhearea deukie.

Dixit: Epertikerea

Koadrilen Egune, Larrabetzun



Maiatzaren 20an, Koadrilen Egune ospatu zen lehenengo aldiz Larrabetzun. Koadrilen Egune Hori Bai gaztetxeko kideek antolatu zuten, larrabetzuarren arteko harremanak sendotzeko. Guztira, 19 koadrila batu ziren. Goizeko 11:00etatik gaueko ordu txikiak arte, Andra Mari kalea jendez gainezka eta giro onean egon zen. Bakoitzak bere jatekoa prestatu behar izan zuen, baina denek ahalginak egin zituzten jaki bat ahalik eta ondoen prestatzeko. Halan da ze, eguerdiko 14:30ean, 19 tortilla aurkeztu ziren txapelketa. Bazkalostean, koadrila guztiek proba sail bat egin beharra izan zuten eta guztiek

sano egin zuten barre euren buruaz zein besteez: txistea kontatu, bertsoak kantatu, moxorrotu, dantza egin... Euri zaparradek ez zituzten parte-hartzaileak kikildu, alderantziz baino, giroa gehiago berotu zen. Gauean, Izotz taldearekin erromerian aritu ziren Hori Bai gaztetxean, 40 urteko gaztetxe honek bizi izan duen gaugirorik ederrenetakoan. Barran batutakoa erromeria eta gainontzeko gastuak ordaintzeko erabili zen. Urtero ospatzearen esperantzaz erretiratu ziren parte-hartzaileak.

Testua eta argazkia: Gotzon Barandiaran

Arrakalak poesia errezitaldia CDan atera dute

Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubak Arrakalak poesia errezitaldia herriz herri aurkeztu du 2004ko azarotik 2006ko ekainera bitartean, eta errezitaldi hori CDan grabatu dute. Lana maiatzaren 24an aurkeztu zuten Bilboko Sarriko unibertsitatean eta publikoaren artean doan banatu zuten. Inork Arrakalak CD eskuratu nahi badu, hurrengo helbide honetan eska dezake: arrekikili@gmail.com.

Bihotz Bakartien Klubak Arrakalak lanaren azken errezitaldia ekainaren 15ean emango du, iluntzeko 8etan, Zaldibarko eskolako aretoan. Gotzon Barandiaran Larrabetzuko taldeko kideak 2004. urtean argitaratu zuen Arrakalak poema bilduma.

Jubilatuen Eguna, Lauroetan

Urtero legez, Jubilatuen Eguna ospatuko dute Lauroetan ekainaren 11n. Egun horretan, beraz, meza egingo dute 12:00etan, eta horren ostean, kopaua, trikitilariak eta bertsolariak egongo dira. 14:00etan, bazkaria egingo dute Aurregoiti jatetxean.

Jubilatuen Egunean parte hartu nahi dutenek hurrengo telefono hauetara deitu behar dute: **94 453 17 18 (Iñaki)** eta **94 453 37 86 (Juantxu)**.

Konponbide demokratikoaren alde lan egiteko deia egin dute Zamudioko hainbat eragilek

Bertako Herriko Taberna urte birako itxi du Grande Marlaska epaileak



Maiatzaren 6an, Zamudioko hainbat eragile eta kultura talde Herriko Tabernaren aurrean bildu ziren, Julemendi elkartearen itxiera salatzeko. “Julemendi Kultur Elkartea herriarena da. Herriarekin eta herriarentzat lan egin du 23 urtean, eta berehala zabaltzeko exijitzen dugu”.

Apirilaren 29an, Grande Marlaska Auzitegi Nazionalako epaileak aitorpena hartu zien Julemendi elkarte sortu zuten zazpi herritarrei, eta maiatzaren 4an, Herriko Taberna urte birako ixteko agindua eman zuen.

Guardia zibilak hurrengo egunean azaldu ziren goizeko hamarrak inguruan, eta, han zeudenak identifikatu ostean, Herriko Taberna zigilatu egin zuten.

Beste alde batetik, EAJren jokabidea ere kritikatu dute Julemendi elkarte kideek. “Ibon Meñikaren atxiloketaren eta elkarte ixteko autoaren aurrean, ez duelako agertu

inongo interesik, ardurarik eta, are gutxiago, konpromisorik”. Apirileko azken astean presazko eskaera egin zuten udaletxean, eta, Marlaskaren erabakia ezagutu ondoren, egueneko osoko bilkurara joan ziren, azalpenak eta bilera bat egiteko eskatzera. Alkateak esan zien gai hori ez zegoela gai zerrendan, eta, zaratak egiten jarraitzen bazuten, handik alde egin behar zutela. Herritarrek handik ez zirela mugituko erantzun zutenez, osoko bilkura beste areto batean egin zuten ateak itxita.

Julemendi elkarteko kideen esanetan, PSOE eta EAJ-ren jarrerak Euskal Herrian zabaldu den bake prozesua oztopatu baino ez du egiten eta errepresio bideak atzean utzi eta konponbide demokratikoaren alde lan egiteko deia egin diete alderdi guztiei. “Guk errepresio guztien gainetik lanean jarraitzeko gure konpromisoa adierazi egiten dugu”.

Hegalariak taldeak 10 urte bete ditu

Ekainaren 3an, Hegalariak Sondikako areto-futboleko taldearen 10. urteurrena ospatuko dute. Egun osoan futbol partidak eta beste ekitaldi batzuk izango dira:

09:45: Areto-futboleko partida: Sondikako Gorondagane A - Gorondagane B (Seinak)

10:45: Areto-futboleko partida: Sondikako Gorondagane-Leioako Mercedarias (Pre-seinak)

12:00: Areto-futboleko partida: He-



galariak taldearen gaur egungo jokalaria, jokari ohien aurka

12:00-14:00: Umeentzako puzgarriak

14:00: Bazkaria

17:00-19:00:

Umeentzako puzgarriak

17:30: Areto-futboleko partida:

Durangoko Sasikoa-Gernikako Gernika FST (Nazional A)

19:30: Sasikoa eta Gernikako jokalarientzako

luntxa.

Txus del Bado askatu dute

Txus del Bado Zamudioko bizilaguna maiatzaren 20an askatu zuten, kartzelan bost urte egin ostean. Autobus bete lagun joan zitzaion bila Albacetera, eta Txus Zamudiora heldu zenean, ongi etorria egin zioten Herriko Tabernan.

Nahiz eta Zamudion bizi izan, Txus del Bado sondikarra da eta han ere ongi etorria egin zioten hilaren 27an. Ondoren, bazkaria egin zuten Zamudion, eta han 125 lagun inguru bildu ziren.

Ertzaintzak 1998ko ekainean atxilotu zuen Txus del Bado, eta 1999ko maiatzean aske gelditu zen. Espainiako Poliziak 2002ko maiatzean berriro atxilotu eta bost urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Atxilotu zutenetik Carabanchel, Navalcarnero, Soto del Real, Valdemoro eta Albacete kartzeletan izan da.



Lanak eta zinea, Derion

Derioko Udalak beharrak egiten jarraitzen ditu herrian. Horrela, bada, ibilgailu astuneko parkingarako sarbidea erraztuko da, errepide nagusian egingo den karril gehigarri baten bidez. Parkingaren ingurua hobetuko da, eta bus-geltokia ere atonduko dute. Era berean, itzulbidea jarriko da bertan. Udalak ia 300.000 € inbertituko du beharretan.

Antzina, zinea ematen zuten San Isidro elizako lokal batean. Lokal hori berritu eta erabili ahal izateko Udalak hitzarmen bat sinatu du apezpikutzarekin. Udalak aretoa konpondu eta "Gurea aretoa" zinea martxan jarriko du bertan. Lanak laster hasiko dira, eta derioztarrek, zine-aretoa urtearen amaierako erabili ahal izatea espero dute.

Beste alde batetik, panel termikoak ipiniko dira kiroldegian eta Errekalde egoitzan. Panel horiek ur bero sanitarioa sortuko dute.

Azkenik, Almazene eta Unbe kaleetako lanak amaitu direla aipatzekoa da. Kale horiek herriko jaien ostean zabaldu ziren. Maiatzaren 30tik aurrera merkatu txikia bertan egingo da.

Lezama Bizirik legalki eratzeko batzarra

Ekainaren 2an, barikuz, Lezama Bizirik elkarteak legalki eratzeko batzarra egingo da 20:00etan Lezamako Kultur Aretoan. Bertan zuzendaritza-batzordea izendatu eta estatutuak onartu egingo dira, besteak beste. Lezama Bizirik elkarteak 100 bazkide baino gehiago ditu.

Eslaloma, Zamudion

Maiatzaren 27an, eslalom-proba izan zen Zamudioko Torrelarragoiti industrialdean, Racing elkarteak antolatuta. Bertan 26 pilotok parte hartu zuten eta Nervión taldeko Aitor Llenak lehenengo postua eskuratu zuen. Beste alde batetik, Jon Ugartek auto 0 gidatu zuen. Auto 0 lasterketa zabalitzen duena da. Eslalom-proba Euskadi Txapelketarako puntuagarria izan zen.

Hainbat lagunak bildu dira Derion, Txepetxaren urteurrena ospatzeko



Maiatzaren 14an, 150 lagun bildu ziren Derion, Txepetxa AEK euskaltegiaren 20. urteurrena ospatzeko. Haien artean, oraingo nahiz lehengo ikasle, irakasle eta laguntzaileak izan ziren. Aipatzekoa da Txorierrin orain 30 urte sortu zela AEK. Bazkarian argazki erakusketa izan zen eta Txepetxaren eta AEK Egunaren kamiseta berriak jarri zituzten salgai. Horrezaz gainera, Portugaleteko Iturriko taldeak bertsoak, kanta eta dantza ekitaldi bat eskaini zituen. Txepetxakideek labur azaldu zuten Txorierriko AEKren ibilbidea, eta logo berriaren eta AEK Egunaren aurkezpena egin zuten.

Urdaneta KT Euskadiren ordezkaria, Coca-Cola Torneoan

Maiatzaren 30tik ekainaren 3ra bitartean, Coca-Cola Torneoa jokatu da Logroñon. Torneo hori estatu mailakoa da eta Loiuko Urdaneta KT Euskadiren ordezkari gisa joango da

kadete mailan. Urdanetak txapelketa hori irabazten badu, Alemanian egitekoa den munduko futbol txapelketan parte hartuko du ekainaren erdian.

Gorantzaileak taldearen urteurrenaren ospakizunak

Sondikako Gorantzaileak dantza taldeak 40 urte bete ditu aurten eta urteurrenaren ekitaldirik nagusiena irailean izango den arren, ekainaren 16an ere dantza agerraldia eskainiko dute. Ekitaldia gaueko 10etatik aurrera izango da, eta bertan Bizkaiko, Gipuzkoako eta Eltziegoko dantzak egingo dituzte, besteak beste. Eguraldia lagun izanez gero, Sondikako Pergolan izango dira eta euria ari badu, frontoian. Agrupación Olagüe abesbatzak ere parte hartuko du ekitaldian.

Aipatzekoa da Gorantzaileak dantza taldearen ibilbideari buruzko liburua laster kaleratuko dutela.

Txuma Olagüe memoriala, ekainean

Ekainaren 3an, zapatuz, Txuma Olagüe XII. Memoriala izango da Sondikako elizan arratsaldeko 7:30etik aurrera. Bertan Txuma Olagüe abesbatzak, Agrupación Txuma Olagüe abesbatzak, Erandio Goiko gizonzkoen abesbatzak eta Pentagrama akordeoi taldeak parte hartuko dute.

Beste alde batetik, uztailaren 1ean, 20:00etan, Idahoko koru batek kontzertua eskainiko du Sondikako Kultur Etxean, Txuma Olagüe abesbatzak antolatuta. Ostean, Txuma Olagüe abesbatzak eta Agrupación Txuma Olagüe abesbatzak ere emanaldia eskainiko dute.

Gizarte-eragileak ere EBPNren partaide

Txorierriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2003. urtean onartu zen. Plan horrek euskara indartzea du helburu maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean eta lau urtean (2003-2006) jorratzekoa da. Gizarte-eragileen partehartzea ezinbestekoa jotzen da zeregin horretan eta horregatik, Euskara Aholku Batzordea sortu zen Plan Nagusiarekin batera.

Organo bi eratu ziren, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) aurrera eramateko: Mankomunitateko Euskara eta Kultura Batzorde Informatiboa eta Euskara Aholku Batzordea. Azken horretan 22 lagunek parte hartzen dute, eta haien artean: Txorierriko Mankomunitateko euskara arduraduna; herri guztietako Euskara eta Kultura Batzordeko kideak; Mankomunitateko euskara teknikaria; Udal euskaltegi-ko arduraduna eta hainbat arlotako gizarte-eragileak daude. Irakaskuntza, erlijioa, kirola, gurasoen elkarteak, kulturgintza, teknologia, hedabideak, ostalaritza eta euskara elkarteak aipatzekoak dira arlo horien artean.

Euskara Aholku Batzordea urtean bitan batzen da eta bilera horietan, Euskara eta Kultura Batzordeak Txorierrin euskararen erabilera normalizatzeko egindako ekintzak eta proposamenak aztertzen dituzte. Horrela, bada, hori organo aholku-emailea da eta EBPN plan estrategikoari buruzko iradokizunak eta proposamenak egiteaz gainera, urtean urteko kudeaketa-planaren

jarraipena egiten dute, besteak beste.

EBPN martxan jarri zenetik hona, hainbat ekintza antolatu dira Txorierrin euskararen alde: dirulaguntzak euskara ikasteko; merkataritza euskalduntzeko kanpaina; gurasoei, etxeko andreei eta etorkinei zuzendutako euskara eskola; D ereduaren

aldeko kanpainak; Euskara Eguna; idazlan lehiaketa; gazte euskaldunentzako lan-poltsa osatzea eta aisia eta kirol elkartzeentzako aholkularitza eta itzulpen zerbitzua, esate baterako. Enpresa mundua eta administrazio-barne planak lantzea erronkatzat dute 2006. urtean.

Txorierriko Biziberritzeko Plan Nagusia 2003ko irailean aurkeztu zen Zamudioko Dorrean



Debekuak eta hausnarketak

Badirudi gaur egungo gizartean ezinezkoa dela debeku barik bizitzea: ezin da eskolara piper egin, ezin da motorrean kasko barik ibili, ezin da adin bakoei tabakorik edo alkoholik saldu, ezin da xaborra kalean bota, ezin da erre, ezin da kalamua landatu ezta kontsumitu ere, ezin da edan...

Debekuak edo arauak beharrezkoak ez direla pentsatzen duenik ez dago, ziur asko; baina hortik abiatuta, debeku batzuek ez dute zentzu handirik askorentzat, eta beste batzuk ez dira onartzen inposaketak direlako.

Harrigarria bada ere, azken debekuak ez du izan aplikazio berdina leku guztietan: ezin da erre leku publikoetan... ezta frontoietan ere? Nork dauka agindu hori betearazteko ardura? Inork ez daki edota ez du nahi ardura hori hartu... Eta etxean erre daiteke, nahiz eta ondoan dagoenari kalte egin... Tabernetakoa bakoitzaren aukera da. Nahiko gaitza ulertzeko.

Kalean edatea galarazten duen debekuarekin jarraituko dugu: Bilbon, udal dekretua onartu artean, kalean edan daiteke; baina Madrilen eta Bartzelonan ez, eta presaka omen dabilta Bilbon ere dekretu hori onartzeko. Debekua jaietan ere aplikagarria izango da, eta beharbada; beste herri batzuek ere kalean edatea dekretuz debeka lezakete. Gerta daiteke debekua euskararen inguruko jaietara ere zabaltzea: Ibilaldia, Herri Urrats, Kilometroak... Batek daki nora helduko den!

Eta zer egin dezakete gazteek? Ezin da, ezin da... Makroboteiloia ez ote da izango icebergaren muturra zerrenda bukaezin horretan?

Egoerak hausnarketa sakona eskatzen du eta, horretan, guztiok dugu ardura. Horrela, bada, gurasoek erdua izan behar dute. Ikastetxeetan ere gazteen ohiturak landu beharra dago. Era berean, Ikaskuntza Sailak kanpaina batzuk martxan jarri beharko lituzke, HIESAren prebentziorako edo drogen arriskuen berri emateko egiten den moduan.

Sokari beste muturretik tira eginda, beste hausnarketa bat egingo nuke: arazoa ez da kalean edatea, edatea bera baizik. Eta



“Zer egin dezakete gazteek? Ezin da, ezin da... Makroboteiloia ez ote da izango icebergaren muturra zerrenda bukaezin horretan?”

neurritik gabe eginez gero, berdin da kalean edo tabernan edatea. Kalean edatea merkeagoa bada ere, kalte egiten zaio ingurugiroari. Izan ere, jaiegun baten ondoren kaleari erreparatu baino ez da egin behar, gazteek ematen duten irudiaz jabetzeko.

Debekuak baino, alternatibak behar

dituzte gazteek. Eta Txorierriko Mankomunitateak horiei dei egin die, osasuna, kirola, aisia, lokalak eta abarreko kontuak lantzeko. Ea gauza ondo ateratzen den eta gazteek euren lekua aurkitzen duten gizarte honetan! Baina haiek pelikularen protagonistak direla ahaztu barik; eta horrezaz gainera, argi izan behar dute ondo pasatzeko ezin dela ingurua zikindu eta inori ez zaiola zertan enbarazurik egin.

Nik gazteak gure isla direla argi daukat, eta debekuen aurrean hausnarketa egiten badute, egoera asko, berez konponduko direla. Zergatik ez egin makroboteiloia ekologiko eta logiko baterako deialdia sms-en bidez? “Mkrobtlia, ztoz, edn nuriz ez utz zborrk et ez mlestau inr”

Testua: Jabier Lekerika, Txorierri Politeknika

“Oroigarri ederra izango da sari hau, betiko”

Iñaki Aretxabaleta lezamarrak *Gabriel Aresti* literatura saria eskuratu berri du. Morteruko familiako gazteak 22 urte ditu, eta telekomunikazio ingeniari teknikoak ikasten ari da. Idazteaz gain, musika karrerari dagokion erdi mailako titulua du eta zaletasunen artean biolina jotzea eta irakurtzea ditu. *Testua eta argazkia: Jasone Astola eta Iñaki Bilbao*

Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?

Txikitatik dut zaletasun hori. Amamak kontatzen zizkigun ipuinetatik, istorioetatik izan liteke zeozer etortzea. Eskolan ere idaztarazi egiten ziguten eta nik poz-pozik egiten nuen. Herrian lehenengo, eta Mankomunitatean gero, antolatzen ziren ipuin lehiaketetara beti aurkeztu izan dut lanen bat eta irabazi ere hainbat sari irabazi dut, hor hazi naiz ni.

Irakurtzeko zaletasuna duzula diozu; Ondo idazteko, beharrezkoa da asko irakurtzea?

Berez ondo idazteko eduki behar duzu dohain bat edo, zeozer eduki behar duzu zeuk, baina irakurtzeak asko laguntzen du, hortik ikasi egiten da.

Zer irakurtzen duzu?

Eskuetan jausten zaidan edozer; euskaraz idazten dutenen artean Sarrionaindia, Bernardo Atxagaren *Obabakoak* edo Unai Iturriagaren estiloa, oso gustuko ditut.

***Gabriel Aresti* literatura sariak, zer eman dizu?**

Hasteko poz handia, eta arlo honetan segitzeko bultzada. Sorpresa izan da. Saria Bilboko udaletxean hartu nuen, Saloi Arabean, Azkuna alkateak eman zidan, Arriaga Antzokiaren miniatura eta dirua dira. Oroigarri ederra izango da sari hau, betiko.

Beste sari aipagarriarik eskuratu duzu?



“Lanak eskuz hastea gustatzen zait, eskuz idazteak bere xarma du”

Resurreccion Maria de Azkue sarira aurkeztu nintzen 13 urte nuela eta epaimahaiaren aipamen berezia lortu nuen.

Zein lan aurkeztu zenuen *Gabriel Aresti* sarira?

Zortzi orriko narrazioa, ipuina da, beren beregi lehiaketa horretarako idatzi nuena. Protagonista 38 urteko gizona da, txikitan tratatu txarrak hartutakoa eta esperientzia horrek nagusitan dituen ondorioak dira ardatza. Salto denboralen teknika erabili dut kontaketa.

Orain arte idatzi dituzun lanetan zein gai jorratu duzu?

Lehenengo ideia bat etorri behar zaizu burura. Informazioa, egunero ko gaietatik, komunikabideetatik baita bizipen propioetatik ere badator eta astiro-astiro ideia elkarketa egiten dut eta forma eman. Batzuetan norberaren zaletasunak edo fobiak ere islatzen dira pertsonaietan, adibidez, azken laneko pertsonaiak eltxoak gorroto ditu eta hori nire neure den ezaugarria da.

Noiz idazten duzu eta non, leku berezirik baduzu sortze lanerako?

Astia dudanean idazten dut, batez ere opor sasoian eta uda partean. Ez dut leku berezirik, berdin ordenagai-

lu aurrean zein kalean jesarrita. Eskuz hastea gustatzen zait, eskuz idazteak bere xarma du baina ordenagailua oso praktikoa da zuzenketetarako batez ere.

Etorkizunerako hau zure lanbidea izan daitekeela pentsatzen duzu?

Zail ikusten dut. Zaletasuna izango da.

Inspirazioa izan, bada, edo idaztea lanaren fruitu da?

Bietatik dago, lehenengo ideia inspirazioak-edo dakar eta gero landu egin behar da.

Ez galdu!

Aurtengo kontzertuek merezi dute! Talde zaharrek eta berriek bat egingo dute Zamudioko jaietan.

Pog Mo Thon: Mungiako boskoteak kaleratu berri duen *Itzalitako argi bakoi* -tzeko diskoa aurkeztuko du.



Berri Txarrak: Nafarroako taldea Euskal Herriko rock bandarik inportanteenetarikoa da. Merkatuan bost disko ditu; *Jaio.Musika.Hil* azken lana iaz kaleratu zuen.

Amaiur: Hainbat euskal kantu eskainiko dituzte, jai giroan murgiltzeko.

Harrobi: Arratiko hirukoteak *Moai* lehenengo diskoa kaleratu berri du. Talde honen musika 60ko eta 70eko urteetako britainiar popean oinarritua dago.

Siniestro Total: Galiziako punk-rock talde mitikoak aspertzearen aurka egiten du. Guztira, 16 disko dituzte merkatuan; azkenekoa iaz kaleratu zuten. Lan horrek *Popular, democrático y científ* -fico du izena.



Luhartz: Talde hau Euskal Herriko erromeriak girotzen ditu 1983. urtetik hona.

Pazko jaiak, prest!

Kontzertuak, perretxiko jatea, sukalki txapelketa, dantzak... Horiek Zamudioko Pazko jaietan izango ditugun ekitaldi batzuk baino ez dira. Ekainaren 2tik 5era bitartean ondo pasatzeko aukera ziurtatua dago herrian.



Jai-egitaraua

Ekainaren 2a, barikua (Sabino Arana plazan)

19:30: Txupinazoa eta gozokiak

19:45: Kalejira. Trikitilari, txistulari, erraldoi eta buruhandiek girotua

21:00: Perretxiko jatea

00:00: Kontzertuak eta gau dantza: Pog Mo Thon, Berri Txarrak eta Amaiur

Ekainaren 3a, zapatua (Bidekoetxe parkean)

09:00: Sukalki Txapelketaren hasiera

11:00: Umeentzako jokoak

11:30: Kalejira

12:00: Gorriti eta bere animaliak

14:00: Sukalki Txapelketako sari banaketa

16:00: Dantzaldia, Gau Alai taldearen eskutik

20:30: Abesbatzak, elizan: Zamudioko Kamara Korala, Bilboko Mendaski Abesbatza eta Zornotzako Brioletak

00:00: Kontzertuak eta gau dantza: Harrobi, Siniestro Total, Luhartz

Ekainaren 4a, domeka

11:00: Meza nagusia, San Martin elizan. Kirol ekitaldiak. Pilota partidak, pilotalekuan

11:45: Kalejira

18:00: Txorierriko dantza taldeen erakustaldia, probalekuan

Ekainaren 5a, astelehena

12:00: Meza nagusia, San Martin elizan

16:30: Mus eta Briska Txapelketa, Adintsuen Elkartean. Herritar guztientzat zabalik

18:00: *Zirko iluna* antzezlan, Sabino Arana plazan. Hortzmuga taldearen eskutik

Sukalki Txapelketa, ekitaldirik erakargarrienetakoa

Ez dago zalantzarik Sukalki Txapelketa jenderik gehien biltzen duen ekitaldietariko bat dela. Txapelketa zapatuan egingo da Torrelarragoiti industrialdeko zelaian. Txapelketa horretan nahi duten guztiek har dezakete parte, herrikoak nahiz erbestekoak izan. Txapelketa goizeko 10etan hasiko da; hala ere, parte-hartzaileak goizeko 8etatik aurrera has daitezke lekua hartzen.

Parte-hartzaile bakoitzak izango duen lekua hesiz itxiko da; hesiok antolatzaileek eroango dituzte. Gisatua butano gasez egingo da; butano bonbonak parte-hartzaileek ekarriko dituzte. Epaimahaiko kideak arrastiko ordu bietatik aurrera hasiko dira kazolak probatzen; sariak arrastiko lau eta erdietan emango dira. Hiru sari izango dira: lehenengoak 150 euro jasoko du; bigarrenak, 100 euro, eta hirugarrenak, 50 euro.



Zirko mundu zoragarria

“Negu gorriko ilunabarra, hiriaren kanpoaldean. Plaza erdian zorigaiztoko gurdi bi, antzina kolore bizikoak. Horien inguruan zirkoko azken kideak. Xehetasun txiki batzuegatik baino ezin suma daiteke artistak direla.

Hainbeste urte, hainbeste bidaia, hainbeste txaloren ondoren, zirko zaharra ahantzi eta elkarri agur esango diote gaur.

Hala ere, Jumbo arriskuaren maitalea, Kerkus dama misteriotsua, Mirinda ekilibrista paregabea eta Fredo fartsaren profesionala ez dira alde egiteko gauza izango,

ikusleak zirkuko karpa gorri dotorea jasotzen zeneko denborara eraman gabe, behintzat. Piztiak, akrobatak, malabaristak... iraganetik itzuliko dira azken emanaldia burutzeko asmoz.”

Zirko iluna antzezlanak zirko zahar eta akabatu baten istorioa kontatzen du, gertatzen diren pertsonaien esperientzien bidez. Txotxongilo erraldoiak, zirko saio txikiak eta etengabeko partaidetza nahasten dituen bidaia fantastiko eta hunkigarria da, familiarreko ikusleagoarentzako kale antzerki ikuskizun zoragarria.

‘Kirolari Ateak Zabalik’ jardunaldiak

Ekainaren 4an, Kirolari Ateak Zabalik izeneko jardunaldiak egingo dira herri askotan, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzaturik. Jardunaldion barruan, Zamudion ere izango dira ekitaldi batzuk goizez. Egun horretan ez da faltako, beraz, kirolaz gozatzeko aukerarik: eskalada-murrua, arku-tiroa, abordatze sarea, tirolina... Kirolari Ateak Zabalik jardunaldien bigarren edizioa da aurtengoa.

Badator berriro ere AEK Eguna

Bi urtez egin barik egon ostean, aurten berriro dugu AEKren ikasturte amaierako jai hau, eta gainera gure artean, Larrabetzun hain zuzen ere. Jai hau AEKko ikasle, ikasle ohi eta irakaslenteak da, ikasturtea euskara praktikatzeko amaitzeko. Baina gainerako euskaltzaleontzak ere bada, euskal giroan egun eder bat pasatzeko eta, era berean, euskal kulturgintzari gure ekarpena egiteko aukera ematen baitugu.

Txepetxa euskaltegiaren 30. urteurrena dela-eta Txorierrira dator jai hau, eta

Larrabetzun kokaturiko bi gune nagusitan izango dira egun horretako emanaldi gehienak. Edozelan ere, aurreko astea ekitaldiz beteta daukagu, Txorierriko hainbat herritan egingo direnak eta denak interesgarriak. Jakin badakigu ez duzula aukera hau galduko, baina hala ere zure lagunak ekartzera animatu gura zaitugu.

Antolatzaileak:

Totoan, Arrekikili, Hori Bai, Zorritzeta, Lagatzu, Tximintx eta AEK



Ekainak 10, AEK Eguna

11:00: Hasiera Ekitaldia. Bertsolariak: Etxahun Lekue eta Iratxe Ibarra.

11:30: Xiba Jokoa: herri kiroleetan oinarritua.

12:30: Futbol partida: Athleticeko beterranoak AEKko ikasle-irakasleen aurka.

15:00-17:00 Bazkaria bazkari gunean, norberak eramandakoa edo bertan erositako otartekoak. Bertsolariak: Beñat Ugartetxea eta Oihana Bartra. Trikitilariak.

16:30: Kukubiltxo: *Kukubel 2.0* ikuskizuna.

17:00: "Esaera zaharrak eta bertsoak" jendarteko lehiaketa, Miren Loizaga eta Xabi Paia bertsolariekin.

17:30: "Mihiluze – AEK" ETBko saioaren egokitzaipena. (Kike Amonarriz, Ilazki Serrano eta Asisko Urmenetarekin)

19:00: Erromeria Luhartz taldearekin.

23:00: Txosnak itxi eta jaia jarraitu Hori Bain (DJ Marek 131 eta DJ Makala) eta herrian.

AEK Eguna baino AEK Astea

Ekainak 3, Larrabetzun: Ruper Ordorika, kontzertu akustikoa. Hori Bain 22:00etan.

Ekainak 6, Zamudion: Koldo Zuazo. *Euskara batua, ezina ekinez egina* berbaldia. Dorretxean 22:00

Ekainak 7, Derion: Euskararen oraina eta geroa, mahai-ingurua. Larrabarrin 20:00

Ekainak 8, Larrabetzun: Unai Elorriaga, *Vredraman* liburuari buruzko berbaldia. Angulerin 20:00.

Ekainak 9, Lezaman: *Lezama berbarik berba* liburuaren eta CDaren aurkezpena.

Adintsuen lokalean 22:00.

Ekainak 10, Larrabetzun: AEK Eguna 06.

Txotxongiloek bizia izango dute Sondikan

Ekainaren 16tik 18ra bitartean, Txotxongilo Eguna ospatuko da Sondikan, UNIMA-EUSKAL HERRIAK antolatua (Txotxongiloen Nazioarteko Batasuna da UNIMA). Bertan, Euskal Herriko 15 antzerki taldek hartuko dute parte, eta horien artean, Irrintzi, Kukubiltxo, Panta Rhei eta Colectivo Humo dira aipatzekoak. Txotxongiloen antzerki-arloan profesionalak eta zaleak biltzeko jolasgunea izatea da ospakizunaren helburua, baita euskararen erabilera bultzatzea ere.

Egitaraua

Ekainaren 16a, barikua

18:30: Txotxongilo Egunaren inaugurazioa

19:30: *El critsal oscuro* filma eta *making offa*, Kultur Aretoan

24:00: *La milonga del Babalán*, El Tenderete taldearen eskutik, Jubilatuen Etxean

Ekainaren 17a, zapatua

11:00-14:00: Txotxongilo Eraikuntza tailerra, Kultur 2an. Makillaje tailerra, Goiri Erdikoan

11:00: *Ni arratoi*, Behi-Bi's taldearen eskutik, Ludotekan

12:00: Euskal ipuinak, Antzezkiuna taldearen eskutik, Kultur Aretoan. *Paracalles*, Corrado Masacciren eskutik, Goiri Erdikoan

13:00: *Txaribari*, Panta Rhei taldearen

eskutik, Ikurrina Enparantzan

16:00: *Herensugea*, Txotxongillo taldearen eskutik, Jubilatuen Etxean

17:00: *Benjamín el viajero*, Colectivo Humo taldearen eskutik, Artebe kiroldegian

17:00-19:00: Txotxongilo Eraikuntza tailerra, Kultur 2an. Makillaje tailerra, Goiri Erdikoan

17:30: *Paracalles*, Corrado Masacciren eskutik, Goiri Erdikoan

18:00: *Adarbakar urdina*, Bihar taldearen eskutik, Kultur Aretoan

19:00: *Hesiak eta lehioak*, Mari Teatro taldearen eskutik, Jubilatuen Etxean

20:00: *Dentro del laberinto* filma eta *making offa*, Kultur Aretoan

23:00: UNIMA EUSKAL HERRIAREN GALA, Goiri Enparantzan

Ekainaren 18a, domeka

11:00-14:00: Txotxongilo Eraikuntza tailerra, Kultur 2an. Makillaje tailerra, Goiri Erdikoan

11:00: *Barne iluna*, Azika taldearen eskutik, Kultur Aretoan

12:00: *Paracalles*, Corrado Masacciren eskutik, Goiri Erdikoan

12.30: *Txalapartarik*, Txalapartarik taldearen eskutik, Ikurrina Enparantzan

16:00: *Zapataria eta Prakagorriak*, Irrintzi taldearen eskutik, Kultur Aretoan

17:00: *Rosa, kontaidazu ipuin bat*, Rosa M^a Martinezen eskutik, Ludotekan

17:00-19:00: Txotxongilo Eraikuntza tailerra, Kultur 2an. Makillaje tailerra, Artebe Plazan

17:30: *Paracalles*, Corrado Masacciren eskutik, Artebe Plazan

18:00: *Bastoa itzuli, loreak irabazi*, Proismo Cero taldearen eskutik, Goiri Erdikoan

19:30: *Doktor Do-re-mi*, Kukubiltxo-Oskorri taldeen eskutik, Goiri Enparantzan



Txotxongilo Eguna 2001. urtean izan zen lehenengo aldiz Abadiñon, UNIMA-EUSKAL HERRIA elkarteak antolatua. Antolatzaileek jaialdia bi urterik behin egitea pentsatu zuten hasieran, eta, hala, 2003. urteko edizioa Getxon ospatu zen. Hala ere, bertan edukitako arrakasta handiak antolatzaileak animatu, eta hurrengo urtean ere Getxon egitea erabaki zuten. Aurtengo edizioa Sondikan izango da, ospakizuna hartzeko azpiegiturarik egokienak dituen herria baita, antolatzaileen ustez.

Tailerrak

Ekainaren 17an eta 18an, bisitariei zuzendutako tailer bi egingo dira, goizez eta arratsaldez. Bata txotxongiloak egiteko tailerra izango da, eta Kultur 2 lokalean kokatuko dute. Bestea makillaje tailerra izango da.

Argazkiak: Nati Cuevas



Apainketa

Ekitaldiak egingo diren lokal eta gune guztietan apaingarri bezeriak jarriko dira, eta Maria Netta –ospakizunaren irudia– ere ipiniko dute. Horrez gain, Sondikako kaleak kolorez betetako posterrekin apaindu, eta Maria Nettaren irudiak zuhaitzetan eta faroletan eskegiko dira.

Filmak

Ekainaren 17an, Jim Henson txotxongilolarien *El cristal oscuro* filma eta horren making offa eskainiko dira Sondikako Kultur Aretoan. Hurrengo egunetan, zinegile beraren *Dentro del laberinto* filma eta horren *making offa* emango dituzte.

Animazioa

Trikitilariek, dultzaineroek eta txistulariek giroa alaituko dute hiru egunotan. Horrezaz gainera, pirotekniako petardo-sorta erreko da ekitaldien hasieran eta, horiek amaitu ostean, txotxongilo-pertsonaiek doako txartelak banatuko dituzte hainbat tabernetan pintxo bat eta trago bat hartzeko.

UNIMA EUSKAL HERRIAREN 2006ko gala

Euskal Herriko txotxongiloen taldeek bat egingo dute lehenengo aldiz gala batean. Horrela, bada, antzerki-konpainiak eurak sortutako lanen erakustaldi bateratua eskainiko dute. Tamaina naturaleko txotxongilo bik taldeak aurkeztuko dituzte, eta horiek, pieza labur bat antzeztuko dute.

Erakusketa

Bilboko Txotxongiloen Dokumentazio Zentroak eta Corrado Masaccik utzitako Txotxongilo erakusketa 15 egunean izango da ikusgai erakusketa-aretoan. Nati Cuevasek egindako mundu osoko txotxongiloen argazkiak ere jarriko dituzte bertan.

Gastronomia, erromeriak eta dibertsioa, Loiuko jaietan

San Pedro eta Santa Luzia jaiak izango dira Loiun, ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitartean. Bost egun dira musikaz, txapelketaz eta lagunez gozatzeko.

Jai-egitaraua

Ekainaren 28a, eguaztena

19:00: Koadrilen jaitiera, Landuatzeta kaletik, Kuklux fanfarreak girotuta
20:00: Pregoia, Julio Ibarrenaren eskutik
21:00: Herri afaria, txosnan
22:30: Berbena, Egan Berri taldearen eskutik

Ekainaren 29a, eguena. San Pedro - Jubilatuen Eguna

10:00: Kalejira
12:00: Meza
14:00: Jubilatuentzako bazkaria, frontoian. Gainontzekoentzat, landa-bazkaria, udaletxe ondoko zelaian
16:00: Mus eta Briska Txapelketa, jubilatuentzat

17:30: Euskal zirkuitua tailerrak
18:00: Erromeria, Txinparta taldearen eskutik
20:00: Sagardo Jaia. II. Tortilla Txapelketa
21:30: Tortillan aurkezpena
22:00: Erromeria, Txinparta taldearen eskutik
23:30: Diskoteka, Zuzunegi taldearen eskutik

Ekainaren 30a, barikua. Santa Luzia

10:00: Kalejira
12:00: Meza
13:00: Luntxa, frontoian
17:30: Iñigo Magoaren emanaldia
19:00: Motozerraz egindako figuren erakustaldia
19:30: Paleta Txapelketaren finalaurrekoak
20:00: Sardina jana

21:00: III. Pintxo Txapelketaren moka-
duen aurkezpena
22:00: Berbena, The Cartoon Band taldearen eskutik
02:00: Diskoteka, Zuzunegi taldearen eskutik

Uztailaren 1a, zapatua

10:00: Kalejira. Loiuko Jaiak II. Paella Txapelketa. Trikitilariak eta gaiteroak goiz osoan zehar
11:00: Haurrentzako Pintura Lehiaketa
14:00: Paellen aurkezpena
17:00: Kin ball, udaletxe ondoko zelaian
18:00: Diskoteka, udaletxe ondoko zelaian Zuzunegi taldearen eskutik
20:00: Dantzaldia, Herriko Enparantzan Patxi bat, bi, hiru taldearen eskutik
23:00: Berbena, Kresala taldearen eskutik
03:00: Diskoteka, Zuzunegi taldearen eskutik

Uztailaren 2a, domeka

10:00: Kalejira
10:30: Erraldoiak eta buruhandiak, Ondalan taldearen eskutik
11:00: Meza. Umeentzako parkea
11:45: Dantza agerraldia, LEKE taldearen eskutik
13:00: Erromeria, Bizkaiko Gaiteroak taldearen eskutik
16:30: Haurrentzako parkea
17:30: Paleta Txapelketaren finala. Pailazoak, Txapitel taldearen eskutik
19:00: Basurtoko Beti Jai Alai dantza taldearen emanaldia
20:00: Erromeria, Kiñu taldearen eskutik
22:30: Patxiko maskotaren erretzea
23:00: Las Fellini showa
24:00: Jaien amaiera eta txokolatada



Sagardo Jaia eta euskal tailerrak

Ekainaren 29an, eguenean, Jubilatuen Eguna ospatuko da; baina egun horrek euskal zaporea ere izango du. Horrela, bada, umeentzako talo, txalaparta eta bertsolaritza tailerrak izango dira arratsaldeko 5:30ean, Alaiki enpresaren eskutik. Tailerrok umeak euskal kulturara hurbiltzea dute helburu.

Beste alde batetik, Sagardo Jaia egin-

go dute lehenengo aldiz arratsaldeko 8etatik aurrera. Bertan 90 litro garagardo, gazta eta intxaurrak banatuko dituzte eta, horrezaz gainera, bertsolariak eta erromeria egongo dira. Garagardo Jaian jentetza handiak parte hartzea espero du jai-batzordeak, izan ere ekitaldirik garrantzitsuenetarikoa izango da, duda barik.



Gastronomia lehiaketak protagonismo handia dute Loian, izan ere hiru antolatuta dira: Tortilla, Paella eta Pintxo Txapelketa, hain zuzen ere.

II. Tortilla Txapelketa egunean izango da arratsaldeko 8etan. Kanpingasak-eta herriko edozein bazterretan jarri ahal izango dira eta tortillak gaueko 9:30ean aurkeztu behar dira epaimahaiaren aurrean. Saritzat hiru trofeo emango dira. Tortilla Txapelketa gazte gehien erakartzen duen ekitaldia da.

Loiuko III. Pintxo Lehiaketa barikuan egingo dute. Partehartzaileek bandeja bi, gehienez jota, aurkez ditzakete eta bandeja bakoitzean 15-20 pintxo egon behar dira. Epaimahaiak hiru sari emango ditu eta pintxoak herritarren artean banatuko dira, proba ditzaten.

Azkenik, Paella Txapelketa zapatuan izango da udaletxe ondoko zelaian. Bertan 55 karpa jarriko dituzte eta koadrilei arroz kilo bana emango zaie; orotara 115 kilo arroz banatuko dira. Horrezaz gainera, egurra ere emango zaie, eta nahiz eta gasa erabili ahal duten, puntu gehiago lortuko dituzte egurra erabiltzen badute paella egi-teko.

Gastronomiako kritikari batek eta hainbat sukaldarik osatuko dute epaimahaiak eta hurrengo irizpide hauek hartuko dituzte

Jo ta ke sukaldean!



kontuan: zaporea, testura, produktuaren kalitatea, aurkezpena eta egurra ala gasa erabili den. Epaimahaiak 10 sari emango ditu eta herri-saria ere egongo da. Beste alde batetik, udaletxe eta zelaiaren arteko errepidea trafikorako itxiko dela eta egun osoan

zehir erromeria izango dela aurreratu digute antolatzaileek.

Paella Txapelketa iaz egin zen lehenengo aldiz eta arrakasta itzela lortu zuen, izan ere 45 koadrilak parte hartu zuten bertan; horietatik 42 Loiukoak ziren.

Jai-batzordea sortu da

Nahiz eta herritar batzuek iazko jaietako antolakuntzan parte hartu, Gautxori Loiuko jai-batzordea aurtien osatu da ofizialki. Jai-batzordea 16 urtetik 67 urtera bitarteko 14 lagunek osatzen dute. “Adin guztietako pertsonak bertan egotea abantaila handia da guretzat, izan ere ekarpen guztiak aberasgarriak dira, eta guztiz lagungarriak ekitaldiak antolatzeko orduan. Ondoren, loiutar guztiei zuzendutako jai-egitaraua egiteko aukera izan dugu”, esan digute Jone Arteagoitiak eta Gerardo Izquierdok.

Loiuko kultur elkarten eta taldeen ordezkariak eta herritarrek parte hartzen dute jai-batzordean; hala

ere, hurrengo urteari begira jende gehiago animatzea nahiko lukete. “Ahalik eta ekarpen gehien, hobeto. Jai-egitarau nahiko ona eta dinamikoa antolatu dugula uste dugu, baina egia da gauza batzuk ihes egingen dutela eta iritzi asko izatea ezinbestekoa da horrelakorik ez gertatzeko”.

Jai-batzordeak aurtengo jaiak partehartzaileak eta arrakastatsuak izatea espero du. “Herritarrek nagusiki izan ditugu buruan horiek antolatzeko orduan. Baina kanpotarrak bertora hurbiltzen badira, horiek ere edukiko dute zer egin eta zer ikusi”.



Banderak balkoietan, zapiak lepoan

Loiuko Udalak idatzi bana bidaliko die herritar guztiei, jaietan parte hartzera zein balkoietan Loiuko bandera jartzera animatuz. Idazkiarekin batera herriko intsignia bi eta jaietako zapi bi bialduko zaizkie; orotara, 2.500 zapi eta 2000 intsignia banatuko dira. Beste alde batetik, Udalak 800 bandera banatu zituen iaz herritarren artean, baina inork ez badu, udaletxean bertan har dezake.

San Joan´06, Sondikan

Sua pizteko unea laster izango dugu, eta Sondikan ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte San Joanen omenez. Horrela, bada, kontzertuez, txapelketez, gastronomiaz, kirolaz eta su artifizialez gozatzeko aukera edukiko dugu bertan ekainaren 22tik 25era bitartean.

Jai-egitaraua

Ekainaren 22a, eguena

19:30: Pentagrama akordeoi taldearen emanaldia Sondikako Kultur Etxean.

Ekainaren 23a, barikua

16:00: Arku jaurtiketa eta perkusio taiera, Gorondagane eskola publikoaren IGE-k babestuta.

18:00: Marsel magoaren ekitaldia, Gorondagane eskola publikoaren IGE-k babestuta. Kalejira, Elaiak taldearekin. Txupina-za.

19:30: Gorriti eta bere animaliak, bigan-txak. Viveros Pericak babestuta.

21:00: Tortilla txapelketa; epaimahaiari aurkezteko ordua.

21:30: Txahal-okela dastatzea.

22:00: Gau-jaiia Amaiur taldearekin.

23:00: Donibane sua, (San Joan sua)

23:45: Asier Bilbaoren *showa* eta Amaiur taldearen gau-jaiaren jarraipena.

Ekainaren 24a, zapatua

09:00: Pintura lehiaketa.

11:30: Kalejira Elaiak taldearekin.

11:30-14:00: Umeentzako Parkea Ikurrina Plazan.

12:00: Fanfarrea herritik zehar.

12:30: Meza Nagusia eta ohorezko aurre-

kua.

13:30: Nagusientzako kopaua Jubilatuen etxean.

16:30: Areto-futbola: San Joan torneoaren finalak.

16:00-19:00: Umeentzako Parkea Joan Deunaren landan.

19:30: Gorriti eta bere animaliak, bigan-txak. Viveros Pericak babestuta.

20:30: Gizon probak. Norgehiagoka, harriarekin.

23:00: Su artifizialak ZARAGOZANA pirotekniarekin.

23:30: Betagarri kontzertuan eta gau-pasa Urgabe, Ene Bada eta D.J. Txitxo taldeekin.

Ekainaren 25a, domeka

11:30: Kalejira Elaiak taldearekin. Gazta eta txakolin dastatzea.

13:00: Harri-zulatzailak.

14:00: Sukalki txapelketa; kazolak aurkezteko ordua.

16:00: Mus txapelketa landan.

18:00: Euskal dantzen agerraldia.

20:00: Erromeria Gaupasa taldearekin.

22:00: Amaierako traka eta jaien bukaera.





Asier Bilbao, eskandaloa

Zirikatzea, eskandalizatzea eta erakustea. Horiek dira Asier Bilbaoren *show*-ak dituen helburuak. Horrela, bada, eszenatoki gainean ez du konplexurik eta gaztea, heldua, emakume polita... edozein zirikatzen du, izan ere, publikoaren lepotik barre egitea gustatzen zaio eta publikoak ere bere lepotik barre egin dezala. Bilbotarrak ez du inor axolagabe utziko.

Gizon probak, erronka prest

Aspalditik dabilta gizon probak antolatzen Sondikako jaietan eta, egia esan, horrek arrakasta handia izaten du urtero, bertan milaka lagun batzen direlako. Gizon probetan Txorierri harrizulatzaille taldeak desafioa egingo dio La Arboleda taldeari eta 750 kiloko harria narraz eraman behar dute. Apustuak egin daitezke!



Entzun!



Betagarri taldea

Betagarri taldeak kontzertua emango du zapatuan, eta ostean, berbena egongo da Urgabe eta Ene Bada taldeekin eta DJ Txitxorekin.

Betagarri: Talde hori duela hamar bat urte osatu zen Gasteizen. Merkatuan zazpi lan dituzte eta *Zuzenena* da euren azken lana.

Urgabe: Gatikako taldeak askotan jo du Txorierriko jaietan. Izan ere, bertan jarraitzaile leialak ditu. Taldearen azken diskoak *Edan hemendik* du izena eta 2004. urtean kaleratu zuten.

Ene Bada: Trikitixa oinarritzat hartuta, pop-rocka musika mota lantzen du talde bizkaitarrak. Beraien kontzertu eta erromeriak biziak eta zuzenak izaten dira.

Dj Txitxo: Indarrak galdu arte!



Urgabe taldea

Txahal-okela dastatzea, San Joan landan

Barikuan, iluntzeko 9:30ean, txahal-okela dastatzea izango da San Joan landan, Loiutarrak elkartearen eskutik. Loiutarrak sozietatekoek, beraiek hazi dute dastatuko den txahala, eta oso su

motelean erreko dute 12 orduan. Kalkuluen arabera, 1000 txahal-anoa banatuko dira. Txahala dastatzea iaz antolatu zen lehenengo aldiz eta oso arrakastatsua izan zen.

Jai-batzordea berritu da

Aurtengo San Joan jaietako nobedadeetariko bat jai-batzordea berria dela da. Beatriz Ortizek, Naia Landak, Erkuden Iturregik, Unai Markinak eta Eduardo Teranek osatzen dute jai-batzordea. Horiek 20 urte inguruko gazteak dira. Aurtengo jai-egitaraua egiteko, jai-batzordekide ohien laguntza izan dute, eta aurreko urteetan arrakasta eduki duten ekitaldietan oinarritu dira. Gogotsu ekin diote jaiak antolatzeari eta hurrengo urteari begira, ziur asko, sorpresa bat baino gehiago emango digute.

Tortilla eta sukalki txapelketa

Gastronomia txapelketak ekitaldirik erakargarrienetarikoa dira edozein herriko jaietan, eta Sondikan ere egongo dira. Horrela, bada, barikuan tortilla txapelketa egingo dute San Joan landan. Bertan nahi duen guztiak –herrikoak nahiz kanpokoak– parte har dezakete. Hiru trofeo emango dira saritzat.

Beste alde batetik, sukalki txapelketa izango da domekan. Hori ere San Joan landan egingo da eta hiru sari emango dira. Guztira, 600 euro banatuko dituzte.

Txinpasmendi Guraso Elkarte

Larrabetzuko gurasoen etxeko lanak

Larrabetzuko guraso elkarteak ia eskolak besteko urte ditu, eta jende ugari eta anitza pasa da hortik denboran zehar. Gaur egun ere bizirik dirau, eta euren lanak eta proiektuak aurkeztu dizkigute Agus eta Asun partaideek.

Testua eta argazkia: Ines Serrano



Zenbat lagunek osatzen duzue elkarteak?

Aurten 13 bat pertsona gaude, guzti guztiak batera gutxitan elkartzen garen arren, eta eginbeharrekoen arabera batzen gara, astean behin batzuetan, sarriago besteetan.

Zein da guraso elkarte baten eginkizuna?

Arlo akademikoa ez beste jardueraz arduratzen gara: umeentzako eskolaz kanpoko ekintzak antolatu, gurasoentzako tailerrak edo ikastaro laburrak, jaiak (inauterietan edo ikasturte amaieran), jantokiko kudeaketa ...

Beste alde batetik, eskolako irakasleekin ere harremanetan egoten gara, batzar iraunkorraren bidez, eta sarritan elkartzen gara ikasturtean zehar, elkarren berri izan eta informazioa trukatzeko.

Eta azkenik eskolako kontseiluan parte hartzen dugu, beste gurasoekin batera. Urtean birritan edo, gurasoak, irakasleak, udaletxeko ordezkariak eta pertsonal ez irakaslearen ordezkari bat biltzen gara. Jakina denez, Eskolako Kontseilua da eskola komunitatearen organo nagusie-

*"Ikasturte hasieran
burututa eskolan behar
ziren lanak ez dira egin"*

na.

Zeintzuk dira aurkitu dituzuen arazo nagusiak?

Zoritzarrez, gure esku ez dauden arloetan. Ikasturte hasieran burututa behar ziren lanak ez dira egin: igogailu bat jarri behar zen, komunak konpondu, ez dugu inolako aterperik euria egiten duenean, bi urteko gela atondu barik dago ...

Eta nola konpontzen da hori?

Udaletxera eta Hezkuntza Ordezkaritzara idazkiak bidali ondoren Hezkuntzako ordezkariekin hitz egin dugu, eta lan batzuk egingo direla ziurtatu digute, igogailua eta komunak berritu, adibidez. Harrigarria iruditu zaigu udalak eskolako hobekuntzak egiteko Hezkuntza Sailean inolako dirulaguntzarik eskatu ez izana, prozedura normala baita beste herrietan. Eskolako beharrezanean erantzun behar zaiela uste dugu.

Eta erantzuten zaie?

Aurten hainbat gauza egin ditu udalak: fatxada garbitu, jantokia eta komunak margotu, kanpoko aldean jolaserako murrizketak pintatu ... Hala ere, aipatu bezala, badago beharrezkoak eta aspaldi-koak diren lanak burutu barik.

Zuek kudeatzen duzue jantokia...

Bai, zeharkako kudeaketa dugu; honek esan nahi du gurasook sukaldariak ez ezik bestelako langileak ere kontratatzen ditu-

gula, guk aukeratzen ditugula menuak eta baita eurak egiteko elikagaiak erosi ere. Ildo honi jarraituz, esan behar da ikasle guztiak gelditzen direla bazkaltzen, eta jangaien % 45 herrian erosten direla. Gure asmoa bertan sortzen diren produktuez hornitzea da, ahal den neurrian. Beraz, denon artean osatzen dugun proiektua interesgarria dela uste dugu, sostengarritasun eta kalitatearen aldetik, eta bide hau jorratu nahi dugu. Horrezaz gainera, eskertzekoa da langile eta partaide guztion laguntza eta jarrera.

*"Herriko eta etorritako
jende askok bertara
ekartzen ditu euren
umeak eta hori
seinale ona da"*

Etorkizunari begira proiekturik baduzue?

Umeen zein gurasoentzako ekintzek arrakasta izan dute orain arte, eta ildo horretan jarraitu nahiko genuke berrikuntze-kin, gurasoen eskola bultzatuz, euskara tailerrak antolatuz etab. Jantokia kudeatzeko eredua ere indartu eta hobetu gura

dugu. Izan ere, kudeaketa mota hau dela eta, jantoki honetan dauden hainbat umeri garraiorako dirulaguntzak kendu nahi dizkiete, eta hori ez dugu bidezko-tzat jotzen. Herri txikietan dagoen azpiegitura aprobetxatu nahi dugu, oztoporik gabe, eta lan nekeza da batzuetan.

Zenbat ikasle daude gaur egun eskolan?

Egun, 147 ume daude, iaz 123 bat ziren, eta datorren urterako 156 espero dira. Gero eta ume gehiagok ikaste dute bertan. Izan ere, gauza nabaria da eskola txiki gelditzen ari dela eta Larrabetzu hazten doala. Hori dela eta epe laburrean gelen faltan aurkituko garela aurreikusten da. Horregatik Larrabetzuko arau subsidia-rioetako iradokizunetan eskola ondoan dagoen eraikina erabiltzeko proposamena egin zaio Udalari, eskola ingururako irtenbide ona delakoan.

Ikasturtearen ebaluaketa egin ezkerro ...

Orokorrean baikorrak gara. Herriko eta etorritako jende askok bertara ekartzen ditu euren umeak eta hori seinale ona da. Eskola publikoa eta partehartzailea bizirik dagoela esan nahi du eta inguru txiki honetan nabarmentzen da. Ikasturte amaieran ospatzen den jaian hainbat eta hainbat umek, gurasok eta lagunek hartzen dute parte, eta ikasleria, herria bezala, handitzen doa. Beraz, eskola eta umeen aldeko apustua egiten jarraituko dugu.

Eguzkia bai, baina seguru

Dagoeneko hasi da eguraldi ona egiten, las-ter hondartzara edo igeritokira joateko sasoia helduko da. Eguzkitan egon gaitezke, bai, baina egonaldi hori segurtasunez egin behar dugu. Fernando Perez Zamudioko medikuak azalpenak eman dizki-gu.

“Azal fotosentibera dutenek ez ezik, beste guztiok ere erabili behar ditugu 15 babes-faktoretik gorako kremak”

Azken 10-15 urteotan, azaleko minbizi kasuak asko gehitu dira eta eguzkiak eragin zuzena du horretan. Nola babes deza-kegu geure burua eguzkitik?

Eguerdiko 1etik arratsaldeko 5era bitartean, eguzkitan luze egotea ekidin behar dugu. Azal fotosentibera dutenek ez ezik, beste guztiok ere erabili behar ditugu 15 babes-faktoretik gorako kremak. Etxetik irten baino ordubete lehenago ezarri behar ditugu kremak azalaren gainean. Bainu bakoitzaren ostean berriro ezarri behar dugu eta, eguzkitan bagaude, ordu birik ordu bira. Beste alde batetik, badira azala erraz erretzen zaienak; halakoek 30 babes-faktoretik gorako kremak ezarri behar dituzte azalaren gainean; muturreko kasuetan komenigarria da 60 babes-faktorea ezartzea. Zaharrek eta azal sentibera dutenek kotoizko arropa jantzi behar dute, baita kapela hegodunak ere.

Zer egin orainen eta azaleko mantxekin? Orainen asko dituzten pertsonen 30 babes-

faktoretik gorako kremak ezarri behar dituzte eta komenigarria izaten da, gainera, medikuak lantzean behin orainenok ikustea.

Eta zer egin behar dugu azala erre ondoren?

Ur hotzeko dutxa hartu, azala hidratatu eta medikuarenera joan, erredura azter dezan. Lehen mailako erredurek eragiten duten azkura joan dadin, potentzia baxuko krema kortikoideak eta hidratatzaileak ezar daitezke. Etxeko erremedioek ez dute ezertarako balio.

Non da kaltegarriagoa eguzkia: hondartzan, mendian ala igeritokian?

Hondartzako haizetxoak azala freskatzen digu eta horregatik, esposizioa txikiagoa dela uste izaten dugu, baina ez da hala izaten. Halako esposizioa handiagoa izaten da, eguzki izpiak haren islatzen direlako.

Beltzaran egotea edertasun-sintoma omen da...

Beltzaran daudenek azaleko minbizia hartzeko arrisku handiagoa izaten dute eta, gainera, azkarrago zahartzen zaie azala.

Begiak ere babestu behar ditugu...

Bai, komeni da eguzki betaurreko homologoak jartzea; batez ere, begi argiak dituztenek.

Baina eguzkiak on ere egiten digu...

Eguzkiak D bitamina sorrarazten du. Bitamina hori beharrezkoa da jakietan dagoen kaltzioa hartzeko eta hezurak gogortu ahal izateko. Dena dela, eguzkitan ordu bete egotea nahikoa izaten da D bitamina sortzeko.

Librezale.org, euskarazko softwarea nahi duenarentzat

Euskarazko software libre hurrengo helbide honetan topa dezakegu: **www.librezale.org**. Bertan euskaraz bizi, ikasi edo lan egiten dugunontzat era errazean instalatu daitezkeen programak aurki ditzakegu. Horiek era zuzenean jaitsi ahal dira edo beraiek eskaintzen dituzten estekak jarraituz. Adibidez, MS Windows duen ordenagailu batentzat gaur egungo nabigatzailerik seguruena, Mozilla Firefox, euskaraz aurki dezakegu, edo SPAM delakoa errazago ekiditeko ThunderBird e-posta jasotzeko programa ere webgune honetan euskaratua dago.

Blogak gogoko dituenarentzat ere WordPress bertan dago euskaratua eta, era berean, foro bat euskaraz eratu



nahi duen taldeak ere badu aukera.

Mozilla erabiltzen baduzu “Bilaketa pluginak” atala interesgarri suertatuko zaizu. Mozillak baditu berez Google edo Yahoo bilatzaileak eta, horien web orrian sartu gabe, erabiltzeko aukera ematen duen hutsune bat. Librezale webguneko atal horretan eskaintzen diren pluginak, adibidez 3000 Hiztegia, Mozillaren plugin bezala instalatuz gero, eta aipatutako hutsune horretan itzuli nahi den hitza sartuz, zuzenean eramango gaitu itzulpen-orrira.

Beste hainbat erabilgarri aurki ditza-kezu Librezale.org bisitatzen baduzu. Webgune hori gomendagarria da benetan, esteka interesgarriak eskaintzen dituelako.

Xuxen.com, idazlanetan behar zenuen laguntza

Aspalditik eskuragarri dagoen arren, ez da behar bezain haina Xuxen zuzentzailearen onurak gazteen artean zabaldu. Institutuan edo Unibertsitatean dagoenari lanak zuzentzen lagunduko dio Xuxen-ek, eta horretarako aukera ugari eskaintzen dira webgunean. Alde batetik webgunean bertan laukitxo bat prestatua dago 2000 karakteretik beherako testuak zuzendu ahal izateko, baina testu luzea-goetarako hobe da Xuxen instalatzea.

Wikipedia, entziklopedia libre eta unibertsala

Jendearen laguntzaz egunez egun **eu.wikipedia.org** gero eta handiagoa da. Ohiko entziklopedia baten begiratu dezakeguna apurka apurka Wikipedian aurki dezakegu, eta zuk zeuk ere nolabait laguntzen baduzu, are gustagarriagoa izango da webgune hori hurrengo erabiltzailearentzat. Edozeinek jar dezake informazioa, eta beraz, pentsa zenezake aurkitutako informazio orri ustela edo akatsez josia egon daitekeela. Horregatik, artikularen bertsioak gain-

begiratu zenitzake, eta akats nabariak sumatuz gero zuk zeuk zuzendu. Gainera, inork ezabatzeko asmo txarra izanez gero, hurrengo datorrenak aurreko bertsiora jo eta aktibatu dezake. Ondorioz, ez da informazio galerarik ematen. Denon artean gauza erabilgarri eta libreak egin ditzakegu, hori da Internetek eskaintzen digun bidea eta aukera.

Testuak: Ioritz Larrabeiti

Imanol Ormaza, Ipar-Alde abesbatzaren zuzendaria

“Egon badago lana musikan; ekin egin behar da”

Imanol Ormaza Martinez, orain dala 33 urte Bermeon jaioa. Aurten 30 urte beteko dituan Ipar-Alde Derioko abesbatzaren zuzendaria. Musika zale amorratua eta musikari profesionala.

Testua eta argazkiak: Pospolin

Zelan hasi zinan musikan, nondik jator-tzu zaletasuna?

Txikitatik. Etxean beti kantau dogu eta, hortik aparte, Madrilgo San Lorenzo del Escorialen, monja dagoan nire izeko baten bitartez, bertako eskolanian bost urtez egon nintzen abestuten eta musika ikasten.

Egizu zeure musika-curriculumaren laburpena hasieratik gaur arte.

Madriletik Bilbora etorri eta goi mailako musika ikasketak amaitu nebazan: hizkuntza musikala, kantua eta pianoa. Gero kantetan hasi nintzan Peñaflozidan, baita Donostian be, eta oraintsuago Tolosan be bai, “Conductus Ensemble” taldean. Hamar urterik honantza Derioko Ipar-Alde abesbatzaren zuzendaritza daroat.

Musika klaseak be emoten dozuz, ezta?

Bai, Getxoko “Andres Isasi” udal musika eskolan, azken 7 urteotan.

Musika, zaletasun hutsa ala profesinoa; bizi leiteke musikatik?

Ez da erraza, baina lana egon badago. Batzuk arin desanimatuten dira, baina, nik egiten dodan moduan, ekin egin behar jako. Lan asko egiten dot eta gehiago be hartuko neuke.



Zuzendaritza lanean, zer da gogorrena eta zer atseginena?

Egunerokotasunean zuzendari lana gogorra da. Gogor egiten da, esate baterako puntualidade falta batzutan, edo gehiago ez arduratzea besteetan, edo gehienek

musikarik ez jakitea... Baina niretzat oso atsegina da lana, adiskidetasun giroan egiten dodalako.

Zein da zure estiloa edota zure esparrua kantagintzan?

Musika erlijiosoan nago gehiago formata, baina uste dot nire formazinoa zabala dala eta arlo guztiak gustetan jataz eta danak gura dodaz ikutu koruagaz: erlijiosoa, folklorea, polifonia eta abar.

Bermeotarra zara, zelan sentiduten zara zeu Derion eta Txorierrin?

Oso gustura sentiduten naz, ez bakarrik Derion koruaren zuzendari legez, baita Txorierri osoan be, lagun eta ezagun asko daukadaz-eta.

Esku artean daukazuen proiektu hau, urteurrena eta diskoa... Kontaiguzu...

Batetik, abesbatzak 30 urte betetan dituala aurten; bestetik, Ipar-Aldek aurreko zuzendariagaz gabon kanten diskoa atara ostean, azken hamar urteotan nire estiloa transmitidu ondoren, pentsau neban euskal folklorean oinarritutako diskoa plazaratutea guzti hori ospatuteko.

Eta etorkizunerako, zeintzuk dira zure proiektuak?

Gorka Sierrak eskatuta, abuztuan kontzertu bat emoteko Frantzian, Bilboko Korlagaz lankidetzak daukagu eta guretik 20 abeslari edo joango gara. Bestalde, epe luzeagora, hemetik urte bira edo, beste disko bat plazaratu gura dogu musika sakragaz osatuta.

Derioko Ipar-Alde abesbatzaren 30. urtebetetzea

Hori ospatzeko, euskal folklореko abesti ezagunekin osotutako disko berria plazaratu dute *Erromeria* izenarekin. Guzti horren inguruan berba egiteko, Jose Ramon Cadenato koruaren lehendakariarekin egon gara.

Kontaguzu labur-labur zer egin duzuen 30 urte hauetan.

Ipar-Alde Abesbatza 1976an sortu zen Indosa lantegiko langile batzuen ekimenez. Hasie-ran lantegiko ekitaldi sozialetan bakarrik abesten bazuen ere, 1982tik aurrera Derio herrian integratu da. Hasiera-hasieratik parte hartu du Bizkaian eta inguruko beste herrialde batzuetan antolatzen diren kantaldietan. Harrezkero, bere curriculum oso zabala bihurtu da: esate baterako, 1987an Bilboko Alde Zaharreko Ageda Deuna Kantaldian 1. saria lortu zuen. Urte berean, Europatik ere itzulia egin zuen Vienan, Italian eta beste hainbat lekutan abestuz. Gaur arte 250 kontzertu baino gehiago eskaini ditu, genero ezberdinak interpretatuz (folklore, eliza-musika, gabon kantak edo polifonia), 100dik gora partitura ezagutuz.

Abestuz aparte, egin duzue besterik?

Bai, musikarekin zerikusia duten beste ekitaldi batzuk ere antolatzen ditugu, gure herriaren eta Txorierriren aberastasun kulturala helburu izanda: koru kontzertuak, jazz jaialdiak, banda-musika



etab. Horien artean azpimarratu gura dugu 1985etik gaur arte urtero antolatzen dugun Gabon Kantu kontzertuak, Txorierriko eta inguruko beste abesbatzak konbidatuz, eta horietako hamargarrena aprobetxatuz, 1995ean gabon kantuekin egindako diskoa atera genuen. Gaur egun, 35 gizonen osatzen dute abesbatza Imanol Ormazaren batutapean.

Eta nola ospatuko duzue urtebetetze biribil hau?

Gure bigarren diskoarekin, oraingoan euskal kanta ezagunez osotuta. Diskoak Euskal Herriko folklореko 15 abesti ditu,

denak euskaraz. *Erromeria* izenburua darama eta Derioko San Kristobal elizan grabatu dugu.

Nola izan da grabazioa?

Iazko martxotik ekainera errepertorioa landu ondoren eta San Kristobal elizan bertan kontzertua eskaini genuen froga modura. Gero, bi grabazio-enpresekin kontaktuan jarri ginen eta batek emandako maketa gustatu zitzaigunez, iazko urriko larunbat-igandeetan ekin genion grabazioari. Ondorengo hileetan, abesti bakoitza hainbat aldiz kantatu behar izaten denez, Imanolek eta grabazio-teknika-

riek saiorik onenak aukeratu dituzte eta grabazioak eskatzen duen beste "laborategi" lana egin dute. Diskoaren azala eta irudiak Jon Elduairen korukideak diseinatu ditu eta argazkiak Jon Ziarsolok, hau ere korukidea. Azkenik, diru laguntza Derioko Udalak eman digunez, diskoa oso-osorik "made in Derio" dela esan genezake.

Eta diskoaren aurkezpena?

San Isidroetan, Derioko jaien bueltan eta herrian bertan egin gura izan dugu aurkezpena, ezelango zalantzarik barik leku eta datarik aproposenak direlako.

“

”

LEHIAKETA

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Pikillo piperrak bakailao ketuagaz


Osagaiak:

- Pikillo piperrak
- Bakailao ketua
- Oliba olioia
- Berakatza

Prestatzeko era:

Pikillo piperrak plater baten ipini, berakatza txiki-txiki eginda ganean zabaldu, oliba olioia bota eta bakailao zati batzuk zabaldu piperren ganean.

Mikrouhin-laban sartu, apur bat epeldu eta mahaira. On egin!



Mari Tere Onaindia


Aguakate entsalada

Osagaiak (4 lagunentzat)

- Letxuga
- Patata egosiak (laguneko bana)
- 2 arrautza egosi
- Aguakate erdia
- Gatza
- Oliba olioia
- Ozpina

Egiteko era:

Garbitu letxuga eta, ura kenduta, jarri erretilu batean zabaldua. Hartu arrautza egosiak, eta banandu gorringo eta zuringoak. Zuringoak zati txikitik txikitu. Gorringoak, berriz, geroko gorde. Zuringoa nahiz patata egosi txikitua letxugaren gainean jarri. Ondoren, aguakate xerrak ere bai. Gatza, olioia eta ozpina gaineratu. Eta amaitzeko pure-egitekoaren laguntzaz arrautza gorringoak birrinduta gainetik jarri. Ukitu polita emango dio.



www.sukaldeon.org

Arotzaren eskuak

Alberto Ladron Arana.

Ane Duhalderi Eguzkienea baserria itxi deutso aitona herentzian. Baserri horretan, aitona iraganaz galdetzeraz behartuko dauan deskubrimendu itzela egingo dau.

Amaren eskuak

Karmele Jaio

"Zenbateraino izan daitezkeen ezezagunak geure ondoan dauzkagunak, eta aldi berean, zenbateraino izan litezkeen berdinak belaunaldi biren arazo eta kezka...". Bizinahiaren aldeko aldarrikapena dakarkigu eleberri eder eta hunkigarri honek.

Amapola oporretan

Jabier Muguruza

"Amapola 7 urteko neskatoa da, beltzarana eta argia. Badira 5 urte aitarekin bakarrik bizi dela. Aitak normalean ez du astirik izaten alabarekin egoteko. Egun batean, hala ere, sorpresa handia eman dio neskatoari..."

Koloretxo

Antton Kazabon

Lañok bizia emoten deutso Koloretxo txotxongiloari, ahotsaren bidez. Egun batean, Koloretxo mutu geratuko da.

MUSIKA

Euskal Herria Jamaika clash.

Fermin Muguruza

20 soplando versos. Celtas Cortos

We shall overcome, the seeger sessions. Bruce Springsteen

DENBORA PASA

LETRAZOPA

H	X	B	S	G	H	F	X	J	G	H	F	N
L	A	T	O	I	P	H	G	G	I	L	O	G
U	L	J	Ñ	E	X	Y	A	H	E	A	M	A
Z	G	Z	E	K	N	E	Ñ	I	K	F	D	L
Y	D	S	K	R	U	B	Y	F	J	L	E	T
J	K	I	O	J	D	G	O	B	D	B	M	Z
A	E	R	A	D	N	O	K	R	A	N	Z	E
E	L	R	F	Y	D	T	P	S	O	J	Ñ	R
B	M	U	S	A	S	R	K	I	N	Ñ	O	D
Ñ	D	X	B	E	K	E	J	P	R	K	T	I
L	F	A	I	Y	A	K	E	A	O	S	P	E
A	U	T	T	B	S	Z	M	P	X	R	U	Y
E	N	H	M	S	L	Z	R	B	R	U	S	E

P	A	Y	A	E	K	I	N	A	K	X	A	R
D	L	Z	F	E	U	X	H	F	I	K	G	H
M	A	K	I	O	T	J	I	E	N	N	G	M
Ñ	Z	B	J	A	U	B	S	T	K	D	I	U
O	B	N	Y	D	B	A	H	U	I	E	M	Ñ
T	X	A	P	E	A	K	B	Ñ	N	P	J	E
X	U	T	Y	T	M	T	I	O	E	N	G	K
K	Y	Z	R	N	P	S	G	L	K	E	K	E
X	D	K	O	A	J	R	O	Z	I	L	F	A
Z	P	S	R	E	S	T	R	F	O	K	M	L
U	O	L	H	B	E	P	G	Ñ	J	X	I	D
E	S	D	J	A	I	N	G	F	L	A	B	Ñ
Y	I	P	E	T	H	F	I	N	H	L	M	N

Aurki itzazu goiko letrazopan **7 arropen izenak***. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* **Derioztarren euskara** liburutik jasoak.

Ezkerraldean AIKOR! 48. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. 7 olgete izenak.

euskal herriko d-generazioa



Erakusketak

Sondika

–Ikastaro eta udal lantegien X. erakusketa, ekainaren 11n, 11:00etatik 14:00etara, Goronda Bekon.

–Udalak 80ko hamarkadan antolatutako argazki lehiaketako lanak, ekainaren 1etik 14ra.

–Txotxongiloen argazkiak, UNIMAre eskutik, ekainaren 16tik 29ra.

Hitzaldiak

Zamudio

–Euskera batua ezina, ekinez egina, Koldo Zuazoren eskutik. Ekainaren 6an, 20:00 etan, dorrean, Lagatzu Euskera Alkartea antolatua.

Irteerak

Zamudio

–Gorlara igoera, ekainaren 10ean, Zamudio Racing elkarteak antolatua.

–Beriain, ekainaren 11n, Arroeta mendi taldeak antolatua.

–Urkiola, ekainaren 13an, Adintsuen Elkartek antolatua.

–Araba Euskaraz, ekainaren 18an.

–Ermiten ibilaldia, ekainaren 18an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

–Zumaia-Elorriaga-Deba, ekainaren 25ean, Arroeta mendi taldeak antolatua.

–Eurodisney, urrian. Izena emateko epea: ekainaren 5etik 13ra.

Lezama

–Itxina, ekainaren 18an, Gailur mendi taldeak antolatua.

Larrabetzu

–Eurodisney, urrian. Izena emateko epea: ekainaren 5etik 12ra.

Jaiak

Larrabetzu

San Antonio, ekainaren 13an, Goikoelexalden: meza, txistulariak, sardina jana, erromeria...



Lehiaketak

Sondika

–Kaleko Pinturaren X. Lehiaketa, maiatzaren 24an; oinarriak udaletxean eta liburutegian daude.

Zamudio

–IV. Pintura Lehiaketa, ekainaren 18an, San Tomas ermitan.

–Futbito Txapelketa, uztailaren 3tik 21era. Izena ematea: ekainaren 16ra arte.

Uda 2006

Sondika

–Gaztetxe eta ludotekako ekitaldietan izena emateko epea: ekainaren 5etik 8ra.

Loiu

–6tik 17 urtera bitarteko gazteentzat. Izena ematea: ekainaren 5etik 8ra.

Zamudio

–6tik 17 urtera bitarteko gazteentzat. Izena ematea: ekainaren 20a baino lehen kultura teknikariaren bulegoan.

Lezama

–4tik 15 urtera bitarteko gaztetxoentzat. Izena ematea: ekainaren 1etik 16ra arte.

Larrabetzu

–4tik 13 urtera bitarteko gaztetxoentzat. Izena ematea: ekainaren 5etik 9ra.

Bestelakoak

Sondika

–Kirolari ateak zabalik, ekainaren 4an, Goronda Beko eta Artebe kiroldegietan.

–III. Sondika Futbol Kanpusa, ekainaren 26tik uztailaren 7ra.

Derio

–Kirolari ateak zabalik, ekainaren 4an, kiroldegian eta pilotalekuan.



–San Joan sua, ekainaren 23an.

–BTT Orientazio Lasterketa, ekainaren 25ean, eskolan.

Zamudio

–San Joan bezperako sua, ekainaren 23an, 19:00etan, Kotxozulo parkean.

–Lagatzu Eguna, ekainaren 24an: kelejira, bazkaria...

Lezama

–San Joan Gaua, ekainaren 23an, 17:30ean: umeentzako jolasak, dantzak...

Larrabetzu

Eskolaren jaia, ekainaren 17an: kalejira, euskal dantzak, indiarren herrixka...